

3E/2015 EBAZPENA, uztailearen 2koa, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak emana. Honen bidez, "euskara erabiltzeko eta sustatzeko toki entitateendako diru-laguntzak" banatzeko deialdia ebazten da.

ERREFERENTZIA: Espedientearen kodea: 001112722015000000

UNITATE KUDEATZAILEA: Hezkuntza Departamentua

Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzua

Euskararen Sustapenerako Atala

Tel.: 848426779 Faxe:

Helbidea: Yanguas y Miranda kalea 27, 1. solairua, 31003 Iruña

Posta elektronikoa: einveduc@cfnavarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Euskara erabiltzeko eta sustatzeko toki entitateendako diru-laguntzak

Araudia: Euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko laguntzak arautzen dituen maiatzaren 23ko 25/2012 Foru Dekretua. Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea.

Eskaerak aurkezteko epea: Euskarabideko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 26ko 2E/2015 Ebazpenaren bidez euskara udal eremuan erabiltzeko eta sustatzeko diru-laguntzen deialdia onetsi zen.

Deialdi horren eranskin gisa ageri dira "Toki entitateek 2015. urtean zehar euskara sustatzeko programak egiteko laguntzen oinarri arautzaileak". Horien arabera, laguntza gehienez ere 147.000,00 eurokoa izanen da eta diru kopuru hori 2015era luzatutako 2012ko gastuen aurrekontuko "Udalei eta kontzejuei euskararen gaineko laguntzak emateko programa" izeneko 440001 44200 4609 334100 kontu-sailaren kargura ordainduko da. Deialdiak bi modalitate bereizten ditu:

A motako jarduerak: norberak sorturiko jarduerak, toki entitate eskatzailearen beraren lurraldean egin direnak. Modalitate honetarako aurrekontuko diru hornidura 110.000 eurokoa da.

B motako jarduerak: hainbat toki entitatearen artean modu bateratuan egindako jarduerak. Modalitate honetarako aurrekontuko diru hornidura 37.000 eurokoa da. Era berean, oinarri arautzaileek eskabideak aurkezteko epeak eta eman beharreko dokumentazioa ezartzen dituzte eta finkatzen dute, aurkezpen epeak bukatutakoan, eskabide horien Balorazio Batzordea eratzea.

Behin Balorazio Batzordea eratu eta aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, onartutako jarduerak xedatu dira, baita deialdiaren oinarriak ez betetzeagatik baztertutako jarduerak ere, eta lortutako puntuazioak eta entitate bakoitzari dagokion laguntzaren diru kopurua adierazi dira.

Gastua justifikatzeko, toki entitateek jardueren gastu eta diru-sarreraren egiaztagiriak aurkeztuko dituzte; jardura kopurua gutxienez atal bakoitzean esleituriko puntuazioari dagokiona izanen da.

Badira Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuaren eta Kontu-hartzailletza Delegatuaren aldeko txostenak. Azaldutakoarekin bat eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1.d eta 99. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 24ko 133/2011 Foru Dekretuaren 3. eta 11. artikuluek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. A motako jardueretarako eskaturiko laguntzak ematea ondoko taulan jasotzen diren onuradunei:

IFK	Toki entitatea	Puntuazioa	LAGUNTZEN ZENBATEKOA
P3101000B	ALTSASUKO UDALA	48,00	2.423,91
P3132500D	ANTSOAINGO UDALA	67,32	3.399,53
P3101700G	ANUEKO UDALA	35,00	1.767,43
P3132500D	AGOIZKO UDALA	58,00	2.928,89
P3102300E	ARANGURENGO UDALA	65,64	3.314,69
P3102800D	ARTZIBARKO UDALA	29,35	1.482,12
P3105800A	AURIZKO UDALA	47,00	2.373,41
P3138600F	BARAÑAINGO UDALA	73,74	3.723,73
P3105000H	BAZTANGO UDALA	54,00	2.726,90
P3125000D	BERAKO UDALA	4,00	202,00
P3190200J	BERRIOBEITIKO UDALA	75,00	3.787,36
P3190300H	BERRIOZARKO UDALA	63,61	3.212,18
P3126600J	BURLATAKO UDALA	88,86	4.487,26
P3119300F	OLTZA ZENDEAKO UDALA	45,85	2.315,34
P3108500D	EGUESIBARKO UDALA	52,00	2.625,90
P3109100B	ERROIBARKO UDALA	52,00	2.625,90
P3109600A	LIZARRAKO UDALA	27,90	1.408,90
P3109700I	ESTERIBARKO UDALA	88,40	4.464,03
P3108300I	ETXARRI ARANAZKO UDALA	75,05	3.789,88
P3108400G	ETXAURIKO UDALA	51,92	2.621,86
P3110800D	GALAR ZENDEAKO UDALA	45,00	2.272,41
P3112100G	UHARTEKO UDALA	76,70	3.873,20
P3125900E	IGANTZIKO UDALA	3,00	151,49
P3118900D	TXULAPAINGO UDALA	48,00	2.423,91
P3155300A	LEKUNBERRIKO UDALA	38,00	1.918,93
P3124800H	LUZAIDKO UDALA	49,00	2.474,41
P3120100G	IRUÑEKO UDALA	92,00	4.645,82
P3118900D	OLAZTIKO UDALA	29,00	1.464,44
P3119400D	OLLARANGO UDALA	28,00	1.413,95
P3190800G	ORKOIENGO UDALA	78,00	3.938,85
P3120600F	GARESKO UDALA	30,80	1.555,34
P3122700B	TAFALLAKO UDALA	23,12	1.167,52
P3125800G	ATARRABIAKO UDALA	65,40	3.302,58
P3190700I	ZIZUR NAGUSIKO UDALA	69,64	3.516,69
P3175000C	AEZKOAKO BATZAR NAGUSIA	29,00	1.464,44
P3129900A	ERRONKARIBARKO BATZAR NAGUSIA	64,00	3.231,88
P3174900E	ZARAITZUKO BATZAR NAGUSIA	72,00	3.635,86
P3126685A	BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATEA	54,90	2.772,35
P3147827D	MALERREKAKO MANKOMUNITATEA	58,10	2.933,94
G31610959	NAFARROAKO IPARRALDEKO MANKOMUNITATEA	65,00	3.282,38
P3117786H	SAKANAKO MANKOMUNITATEA	57,00	2.878,39
		2.178,30	110.000,00

2. B motako jardueretarako eskaturiko laguntzak ematea ondoko taulan jasotzen diren onuradunei:

IFK	Toki entitatea	LAGUNTZA OSOTARA B MODALITA TEAN
		Laguntzen zenbatekoa
P3132500D	ANTSOAINO UDALA	1.440,02
P3101700G	ANUEKO UDALA	169,65
P3132500D	AGOIZKO UDALA	528,03
P3102300E	ARANGURENGO UDALA	1.978,45
P3105800A	AURIZKO UDALA	221,58
P3138600F	BARAÑAINGO UDALA	1.314,16
P3105000H	BAZTANGO UDALA	548,81
P3190200J	BERRIOBEITIKO UDALA	1.598,24
P3190300H	BERRIOZARKO UDALA	1.869,53
P3126600J	BURLATAKO UDALA	2.834,58
P3119300F	OLTZA ZENDEAKO UDALA	504,63
P3108500D	EGUESIBARKO UDALA	1.926,36
P3109600A	LIZARRAKO UDALA	699,95
P3109700I	ESTERIBARKO UDALA	801,08
P3110800D	GALARKO UDALA	238,82
P3112100G	UHARTEKO UDALA	1.006,72
P3119400D	OLLARANGO UDALA	38,37
P3190800G	ORKOIENGO UDALA	614,92
P3120100G	IRUÑEKO UDALA	2.880,70
P3120600F	GARESKO UDALA	909,71
P3122700B	TAFALLAKO UDALA	554,98
P3125800G	ATARRABIako UDALA	2.144,76
P3190700I	ZIZUR NAGUSIKO UDALA	2.684,53
P3175000C	AEZKOAKO BATZAR NAGUSIA	212,69
P3129900A	ERRONKARIBARKO BATZAR NAGUSIA	174,77
P3174900E	ZARAITZUKO BATZAR NAGUSIA	174,77
P3126685A	BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATEA	2.701,31
P3147827D	MALERREKAKO MANKOMUNITATEA	1.441,34
G31610959	NAFARROAKO IPARRALDEKO MANKOMUNITATEA	2.254,91
P3117786H	SAKANAKO MANKOMUNITATEA	2.531,63
OSOTARA		37.000,00

3. Ebazpen hau igortzea toki entitate interesdunetara, Euskarabidera, Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atalera, Euskarabideko Programen Bulegora eta Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegora, behar diren ondorioak izan ditzan.

4. Ebazpen honen kontra administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko dute, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, errekurtsoaren xede den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, alde batera utzi gabe Nafarroako Gobernuan aldez aurreko errekerimendua egiteko aukera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako moduan eta epeetan.

Iruñean, 2015eko uztailaren 2an

EUSKARABIDEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

MAXIMINO GÓMEZ SERRANO